

30EGUNEKO ABONU BERRIA



Transporte Urbano Comarcal
Eskualdeko Hiri Garraioa



Mugarik gabe,
Iruñean eta
Iruñerrian

URTEKO EGUN GUZTIETARAKO
EGUNEKO ORDU GUZTIETARAKO



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

Iruñerriko Mankomunitateko Hiri Garraioko Zerbitzuak ordaintzeko era berria jarri du martxan: **30EGUNEKO ABONUA**. Hain zuzen, prezio finkoa duen tarifa lava da. Tarifa errazagoa da, eta askatasuna ematen duena, garraioko zerbitzuaren kostua ez baitago lotuta egiten den bidaia kopuruari. Hartara, 30 egun horietan nahi adina bidaia egin daiteke, nahi den lineetan, gabez eta egunez, lanegunetan eta jaiegunetan.

30EGUNEKO ABONUA pertsonala eta besterenganaezina da. Dena den, txartel pertsonala erabil dezakezu zurekin doazenei ordaintzeko, baldin eta txartel berak duen **BONO-BUSEAN** diru nahikoa baduzu.

1

NOLA DAKIT 30EGUNEKO ABONUA ERRENTAGARRIA DEN?



Taula hau lagungarria izan dakizuke. Abonuaren prezioa eta hura amortizatzen 30 egunetan egin beharko zenukeen bidaia kopurua ikus ditzakezu, erabiltzaile motaren arabera.

ABONU MOTA	30 EGUNETARAKO PREZIOA	PREZIOA BIDAIAKO *	AMORTIZAZIOA **
Orokorra	30 €	Bono-bus orokorra	0,70 € 43 bidaia
		B eta E tarifa	0,33 € 91 bidaia
		F tarifa	0,17 € 177 bidaia
26 urtetik beherakoak	24 €	0,70 €	35 bidaia
Familia ugariak	21 €	0,49 €	43 bidaia

* 2015eko uztailaren 1etik aurrera indarrean egongo diren tarifak.

** 30 egunetan egin beharreko bidaia kopurua. Hortik gora abonua errentagarria da.

2

ETA ORAIN, NOLA LORTUKO DUT 30 EGUNEKO ABONUA?



30EGUNEKO ABONUA erabiltzeko, garraio txartel pertsonalizatua eduki behar duzu, abonua kargatu ahal izateko.

A

Profil sozialeko txartel pertsonalizatua lehendik baduzu, ez duzu beste kudeaketarik egin behar aurretik: txartelak kargatzeko 255 guneetako edozeinetara joan eta zuzenean kargatu 30 EGUNEKO ABONUA oraingo txartelean. Herritar txartel gorrian ezin da aplikatu.

B

Ez baduzu txartel pertsonalizatutik, lortzeko, dokumentu hauek behar dituzu:

- Argazki bat (NANeko argazkiaren tamainakoa)
- NANaren kopia
- Formulario bete

NOLA ETA NON ESKATU?

Txartela eskatzeko, zenbait aukera daude:

1. AUKERA. On line egitea

www.mcp.es webgunean dagoen eskaera formularioa bete. Argazkia eta NANA gehitu beharko dituzu. Zuk aukeratu non jaso nahi duzun txartela: etxean edo txartel pertsonalizatuak sortzeko 10 guneetako edozeinetan.

2. AUKERA. Txartelak kargatzeko guneean egitea

Txartelak kargatzeko Iruñerrian dauden 255 guneeetako edozeinetan eskatu formularioa eta, bete ondoren, bertara eraman, argazkiarekin eta NANaren kopiarekin batera. Nahiago baduzu, postaz bidali ahal izango dituzu dokumentuak, kargatzeko gunean bertan emango dizuten gutun-azal zigilatu batean. Txartela etxean bertan edo txartel pertsonalizatuak sortzeko 10 guneeetako edozeinetan jaso aukeratu dezakezu.

3. AUKERA. Txartel pertsonalizatuak sortzeko guneean egitea

Txartel pertsonalizatuak sortzeko 10 guneeetako edozeinetan berehala egingo dizute txartela. Kasu honetan, argazkia bertan egingo dizute, eta NANaren kopia ere bai. Gainera, txartela berehala emango dizute.

Txartel pertsonalizatuak sortzeko guneeak

IRUÑEA

Emilio Arrieta, 29
(tabako denda)

Paulino Caballero, 36
(tabako denda)

Magdalena, 3
(tabako denda)

San Saturnino, 20
(tabako denda)

Irurita Apezpikuaren
plaza, 1 (tabako denda)

Pio XII.aren etorbidea, 30
(tabako denda)

ATARRABIA

Ricardo Bel, 2
(tabako denda)

BURLATA

Kale Nagusia, 37
(tabako denda)

UHARTE

Zubiarte, 24
(tabako denda)

BERRIOBEITI

Logistaren Nafarroako
ordezkaritza, Errege
Abelbidea, 6

3

BADUT ABONUA! BAINA NOLA AKTIBATU EDO BERRITUKO DUT?



AKTIBATZEA

Behin erosi duzunean, aktibatuta egin behar duzu. Hain zuzen, aktibatuko da autobusean lehen ordainketa egiten duzunean edo erosi eta handik 7 egunetara.

BERRITZEA

Balioa galtzeko 7 egun edo gutxiago falta direnetik berriro erosi dezakezu. Aldi berrian egiten den lehen bidaiari aktibatuko da edo aurreko aldia amaitu eta handik 7 egunetara.

Eta aintzat hartu: **abonua balioa galduko du aktibatzen denetik 30 egun natural igarotzen direnean.**

Abonua erabiltzen duzun bakoitzean, ordaintzeko makinaren pantailan balioa galduko duen eguna agertuko da. Balioa galdu aurretik berriro dezakezu (7 egun edo gutxiago falta badira). Txartelak kargatzeko 255 guneeetako edozeinetan edo txartel pertsonalizatuak sortzeko 10 guneeetako edozeinetan berriro ahal izango duzu.

Abonua berriro gabe erabiltzen baduzu txartela, BONO-BUS tarifaren prezioa ordainduko duzu, baldin eta diru nahikoa baduzu.

+ INFO

948 423 242
www.mcp.es

